

XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4164

17/2016 EBAZPENA, irailaren 7koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Arabako Lautadako Irla-hariztiak Kontserbazio Bereziko Eremuaren Jarraibideak eta Kudeaketa Neurriak argitaratzea xedatzen duena.

1/2014 Legegintzako Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazeko Legearen testu bategina onartu zen. Dekretu horretako 22.5 artikuluan ezartzen denez, kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) deklaratzeko dekretuek aintzat hartu behar dituzte Eusko Jaurlaritzak halako eremuak kontserbatzeko onartutako arauak. Eusko Jaurlaritzak, halaber, aginduko du eranskin gisa argitaratzeko eremuok kudeatzeko jarraibideak, lurralde historikoetako foru-organoek onartutakoak.

Ildo horretatik, Arabako Lautadako Irla-hariztiak kontserbazio bereziko eremu izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak, azaroaren 3koa 206/2015 Dekretuaren bitartez. Dekretu horretako 3.3 artikuluan eta azken xedapenetatik bigarrenean xedatzen denez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren eskumena da argitara ematea, dekretuaren eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak onartutako kudeaketa-jarraibideak eta -neurriak.

Horrenbestez, aintzat hartuta Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluetan uztailaren 19ko Erabakien bidez onartu zituela Arabako Lautadako Irla-hariztiak Kontserbazio Bereziko Eremuaren Jarraibideak eta Kudeaketa Neurriak biltzen dituen dokumentua eranstea, eta argitara ematea Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 3koa 206/2015 Dekretuaren eranskin gisa,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, azaroaren 3koa 206/2015 Dekretuaren III. eranskin gisa, 2016ko uztailaren 29an Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluetan onartutako Arabako Lautadako Irla-hariztiak Kontserbazio Bereziko Eremuaren Jarraibideak eta Kudeaketa Neurriak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 7a.

Erakunde Harremanetarako sailburuordea,
PEDRO LUIS BAZACO ATUCHA.

2016ko urriaren 3a, astelehena

ERANSKINA, ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEAREN IRAILAREN 7KO 17/2016
EBAZPENARENA.

III. ERANSKINA, AZAROAREN 3KOA 206/2015 DEKRETUARENA ARABAKO LAUTADAKO IRLA-
HARIZTIAK KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN JARRAIBIDEAK ETA KUDEAKETA
NEURRIAK, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN DIPUTATUEN KONTSEILUAK 2016KO
UZTAILAREN 29AN ONARTUAK



ES2110013 KBE

**ARABAKO LAUTADAKO IRLA-
HARIZTIAK**

**Kontserbazio Bereziko
Eremua**

III. Eranskina

**Kudeaketako gidalerro eta
neurriak**



Ingurumen eta Hirigintza Saila
Arabako Foru Aldundia
2016ko ekaina



1.- SARRERA

Euskal Herriko natura babesteko Legeak –zeinaren testu bategina honen bidez onartu baitzen: 1/2012 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa– mekanismo jakin bat zehazten du Europako Erkidegoko araudiaren babesean sortutako espazioen babes figurak lantzeko, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturgune babestuei heltzeko.

Hala, Legeak, 22. artikuluko 5. idatz zatian, zera ezartzen du: «*Lurralde historikoetako foru-organoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak*».

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren uztailaren 21eko 148/2015 Dekretuaren bidez (EHAA 197. zk., 2015eko urriaren 16koa), KBE ES2110015 «Gasteizko Mendi Garaiak» Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zen, bere kontserbazio neurriak ere ezarrita.

Dokumentu honetan, KBE ES2110013 Lautadako Irla-Hariztiak **Kudeatzeko Gidalerroak eta Neurriak** ezartzen dira, 206/2015 Dekretu horretan ezarritako kontserbazio helburuen oinarriaren gainean.

2.- FUNTSEZKOAK DIREN EDO KUDEATU BEHAR DIREN ELEMENTUEN KONTSERBAZIO NEURRIAK

2.1.- HARIZTIAK

1. Helburu orokorra	Hariztien osotasun ekologikoa hobetzea eta haien zatikatzea murriztea.
1.1 Helburu operatiboa	Hariztien eta erkameztien berariazko eta egiturazko dibertsitatea areagotzea.
Jarduerak	<ol style="list-style-type: none"> 1. KBEEn dauden baso pribatuak kartografiatuko dira eta kontserbaziorako akordioak egingo dira jabeekin; akordio horien artean, mantentzeko eta lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduerak hartuko dira kontuan. 2. Beharrezkoa bada, eta basoetan zutik edo zoruan dagoen egur hila nahikoa ez bada, baso horien bolumena handituko da, eta horretarako, sorkuntza-prozesua arinduko da. 3. Urtean sutarako ateratako egurraren bolumena kalkulatu da, eta ahal dela, eskariak ez du arriskuan jarriko basoetan egur hil nahikoa egotea. 4. Hidromorfia- eta istiltze-baldintza naturalak lehengoratuko dira Montico, Arangutxi eta Arzubiaga basoetan. 5. KBEko basoetan babes bereziko araubidean dauden flora espezieen inbentario osoa egingo da eta jarraipen plan bat diseinatu eta betearaziko da.

	<p>6. Faunarako intereseko zuhaitz motzak eta zuhaitzak inbentariatu eta kartografiatuko dira eta bidezkoa denean mantentze ekintzak egingo dira. Ekintza horiek kudeaketako tresna hau indarrean dagoen bitartean egin beharko dira; horretarako, iraun behar duten denbora planifikatu beharko da, beste zuhaitz batzuk alternatiba izateko heldutasun nahikora heldu arte.</p> <p>7. KBEen babes bereziko araubidean dauden flora baskularreko espezieen <i>ex situ</i> kontserbazioa ziurtatuko da (<i>Ranunculus auricomus</i>, <i>Ophioglossum vulgatum</i>, <i>Galium boreale</i>, <i>Narcissus bulbocodium</i> eta <i>Senecio carpetanus</i>), haien populazioak arriskuan jarri gabe, Olarizuko Lorategi Botanikoko Germoplasma Bankuan, eta dauden populazioak indartzeko, landareak berriro sartzeko, sarrera onberak egiteko edo populazio berriak sortzeko landareak ekoizteko beharrezkoak diren erretze eta hazkuntza protokoloak diseinatuko dira.</p>
1.2 Helburu operatiboa	KBEan eta ENEan hariztien azalera handitzea.
Jarduerak	<p>8. KBEen eta Esku hartzeko Nekazaritza Eremuan (ENE) esanguratsuak ez diren habitatak ordeztuz hariztien azalera handitzeko xehetasun plana egingo da.</p> <p>9. Txosten bat idatziko da, esku hartzeko nekazaritza eremuaren barruan dauden luberri guztien gaur egungo erabilerak eta eremu horiek berriro baso bihurtzeko dituzten aukerak aztertzeko, kontuan hartuta gaur egungo gozamenen eta administrazio batzarren interesak, eta alde horretatik ingurumen arloko kanpoko ekintzetarako pizgarriak sustatuko dira.</p> <p>10. Landare estalki naturala eta basoak lehengoratzeari lotutako nitratoen murrizketarako, kreditu bidez nahiz karbono bahiketagaritako kredituen bidez transferi daitezkeen baimenen sistema bat ezartzea aztertuko da.</p> <p>11. Nekazaritza matrizean Habitaten Bankua sortzea aztertuko da, hariztiak eta lotura elementuak lehengora daitezela bideratzeko, eta azterketa horretan kontuan hartuko dira lursailen jabe diren erakunde edo pertsonak.</p> <p>12. Hariztien eta kalitatezko lotura elementuen azalera lehengoratzeko eta handitzeko ingurumen arloko kontratuak sinatzea sustatuko da.</p>
1.3 Helburu operatiboa	ENEaren azpiegitura berdea gehitzea, KBEren baitan basoak euren artean zatikatzea murrizteko, eta Natura 2000 Sarean sartuta dauden edo ez dauden beste baso batzuekiko zatikatzea murrizteko ere.
	<p>13. Esku hartzeko Nekazaritza Eremuan dauden putzuak, loturarako interesa duten elementu natural linealak eta landaredi naturaleko multzo guztiak kartografiatu, ezaugarritu eta baloratuko dira.</p>

Jarduerak	<p>14. Ingurumen baldintzen proposamen bat egingo da luberrien nekazaritza ustiapenerako emakidak esleitzeko. Proposamen horrek bateratu egingo ditu gozamedunen interesak eta luberrien izaera publikoa nahiz luberriek hariztiak lotzeko aukera handitzeko duten ahalmena.</p> <p>15. Zadorra ibaiarekiko lotura elementu linealak eta basotxoak lehengoratuko dira, dauden luberrien itzulketaren edo ingurumen baldintzen bidez, bai eta Iturritxu erreka ingurumen aldetik hobetuz ere.</p> <p>16. KBeko multzoen eta naturgune mugakideen arteko lotura naturala hobetuko duten heskaiak lehengoratuko dira.</p> <p>17. KBeko basoen inguruko matrizean nekazaritza sistemetako hegazti arrunten jarraipenerako protokoloa egin eta betearaziko da eta agiri honen indarraldia amaitu baino lehen populazioen oinarrizko egoera ezarriko da.</p>
1.4 Helburu operatiboa	Jatorri antropikoko unean uneko eragin guztiak ezabatzea.
Jarduerak	<p>18. Unean uneko eraginak (zabortegiak, landaredi nitrofiloko gunek, jabetze pribatuak) jasaten dituzten guneen inbentario xehatua egingo da, baldin eta berriro harizti bihurtu ahal badira, eta lehengoratzeko plana diseinatuko da.</p> <p>19. Kontrolik gabeko isurketak edo bestelako eraginak jasaten dituzten gunek lehengoratuko dira; horretarako, hau aurreikusiko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • hondakinak kentzea, eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea. • hondatuta dauden espazioak ingurumen aldetik lehengoratzea, babestutako habitatak lehengoratzeko. <p>20. Eraginpean dauden erabiltzaileekin ados jarrita, nekazaritzako makinak uzteko leku bat zehaztuko da, hariztietatik kanpo.</p> <p>21. Txosten bat egingo da drainatze artifizialek eta ur ibilgu txikien kanalizazioek KBeko basoetan duten eraginari buruz, eta haranaren sakoneko hariztien lurzoruen hidromorfia lehengoratzeko aukerak ebaluatuko dira.</p>

2.2.- BASO IGEL JAUZKARIA (*Rana dalmatina*)

2. Helburu orokorra	Gutxienik baso-igel jauzkariarentzat lau populazio ezartzea KBeko basoetan edo horren aldameneko inguruan.
2.1 Helburu operatiboa	KBeko eta horren aldameneko inguruan anfibioen egoera eta banaketa ezagutzea; bereziki, baso-igel jauzkariarena.

Jarduerak	<p>22. KBEEn anfibioen laginketarako protokoloa diseinatu eta betearaziko da.</p> <p>23. Baso-igel jauzkariaren populazioaren banaketa eta tamaina ezarriko dira eta bi urterik behin lautadako populazio gune guztien jarraipena egingo da; horren haritik, gune bakoitzean arrisku eta mehatxuak identifikatuko dira.</p>
2.2 Helburu operatiboa	Baso-igel jauzkariaren lehorreko habitaten eskakizunak hobetzea eta ugaltzeko kokaleku egokiak lehengoratzea.
Jarduerak	<p>24. Kudeaketako agiri honen indarraldiko lehen bi urteetan KBEren eta ENEn prospekzioa osatuko da, anfibioentzat eta bereziki baso-igel jauzkariarentzat egokiak diren hezeguneak kokatzen eta kartografiatzen amaitzeko.</p> <p>25. Mezkiako hariztia Arangutxiko hariztiarekin lotuko da. Hala, biak lotzen dituen txilardi kaltzikolan baso korridorea sortuko da.</p> <p>26. Arangutxiko harizti-erkamezti subatlantikoaren multzoa handituko da basotxoaren hegoalde eta mendebaldean kokatutako txilardi kaltzikoletan.</p> <p>27. Montico hariztiaren ondoko ureztatze putzuaren hegoaldean dagoen txilardi kaltzikolako zerrenda estu batean baso korridorea sortuko da, eta putzu horren bazterrak atonduko dira. Jarduera horrek ez du inongo kalterik sortu beharko, eta istil edo putzuaren lehentasunezko erabilera ureztatzea izaten jarraituko du.</p> <p>28. Larrazabalgo hariztiaren hego-ekialdean eta hegoaldean bertan behera utzita dauden belardietan harizti-erkamezti subatlantikoko bi multzo lehengoratuko dira, eta harizti horren hego-ekialdean dagoen ureztatze putzuaren bazterrak atonduko dira.</p> <p>29. Korridore ekologikoa sortuko da putzu hori eta Gazeoko ureztatze putzua lotzen dituzten bideetan heskaien sare batetik abiatuta, baita sahasien eta hezeguneen espazio bat ere trenbidearen alde bietan, bertan baitago lautadako baso-igel jauzkariaren hondar-populaziorik garrantzitsuenetako bat. Korridorean sartuko dira putzuen artean tarteko posizioan dauden belardi hezeko eta makaldiko bi gune; hartara, harizti-erkamezti gisa lehengoratuko dira eta haien barnealdean hainbat putzu sortuko dira.</p> <p>30. Hurbil dauden Gazetako eta Burgeluko hariztiak heskai baten bidez lotuko dira biak komunikatzen dituen bidearen mugan, eta bideetan heskaien bilbe baten bidez era berean Santa Luziako hariztiarekin lotuko dira.</p> <p>31. Burgeluko ureztatze putzuaren bazterrak atonduko dira.</p> <p>32. Bideetan heskaien sare bat sortuko da Añuaren hegoaldean, Ixonako hego-mendebaldeko eremuaren bitartez Aberasturiko basoekin lotzeko (Gasteizko Mendi Garaiak KBE).</p>

	<p>33. Bideetan heskaien bilbea handituko da Mendiluzko harizti-erkamezti subatlantikoa Maumeako harizti eta hezegunearekin lotzeko, bai eta Maumea eta Durrumakoa Errekabarri errekarekin eta Sarrenakoa Ceriorekin lotzeko ere.</p> <p>34. Mendiluzko hariztiaren ondoko ureztatze putzuaren bazterrak atonduko dira eta hariztiaren ekialdean eta barnealdean putzu berriak sortuko dira.</p> <p>35. Istildu ahal diren guneen kokalekuak hautatuko dira (ahal dela jabetza publikoko lurzoruan) eta halakoak egokitu edo lehengoratzeko beharrezkoak diren ekintzak egingo dira proposamen teknikoetan ezartzen diren gidalerro eta irizpide teknikoaren arabera.</p>
2.3 Helburu operatiboa	Baso-igela jauskariaren populazioen hilkortasun ez-naturalaren faktore guztiak ezabatzea.
Jarduerak	<p>36. KBEen eta inguruan anfibioen hilkortasunaren aldiak jarraipena ezarriko da, egon daitezkeen gune beltzak detektatu ahal izateko.</p> <p>37. Gune beltzak detektatuz gero, zuzenduko dira edo haien eragina murriztuko da, egokiak diren neurri teknikoak betearaziz.</p> <p>38. KBEko hezeguneetan espezie exotiko eta/edo inbaditzaileak detektatzeko protokolo bat diseinatuko da eta aktibo mantenduko da. Espezie horiek detektatzen badira, aldi-aldi desagerraraziko dira, hezegune bakoitzean egokiena den prozeduraren bitartez (hustuketa, arrantza elektrikoa, etab.).</p>

3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

3.1.- BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZAK ETA INFORMAZIOA

3. Helburu orokorra	Arabako Lautadako Irla-hariztiak KBEaren biodibertsitatearen kontserbazio egoera ezagutzea, baita haren galeraren edo narriaduraren sorburu izan daitezkeen arrazoiak ere; horrela, hari epe luzean eustea ziurtatuko duten beharrezko neurriak diseinatzeko.
3.1 Helburu operatiboa	Eguneratuta edukitzea Arabako Lautadako Irla-hariztiak KBEa kontserbatzeko interesekoak diren habitat guztien kartografia, baita dibertsitate biologikorako eta osotasun ekologikorako garrantzizkoak diren kokaleku edo elementu naturalen edo kulturalen kartografia ere.
Jarduerak	39. «Basa fauna eta florarako balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua» sortuko da. Inbentario horretan txertatuko dira Ingurumen Gaietarako Ikastegiak Gasteizko udal mugartean egindako inbentarioan dauden datuak. Inbentario horretan sartuko dira putzu guztiak, loturarako interesa

	<p>duten elementu natural linealak eta Esku hartzeko Nekazaritza Eremuan (ENE) dauden landaredi naturaleko multzo guztiak, bai eta interes ekologikoa duten zuhaitzak, mehatxatutako floraren kokalekuak, basa faunaren babeslekuak eta babes bereziko araubidean dauden espezieen bizi-ziklorako garrantzitsuak diren beste elementu guztiak.</p>
3.2 Helburu operatiboa	Galtzeko arriskuan dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzea, baita babes bereziko araubidean dauden basa espezieena ere.
Jarduerak	<p>40. Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egingo da, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentarauaren 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetze aldera.</p>
3.3 Helburu operatiboa	Arabako Lautadako Irla-hariztiak KBEko dibertsitate biologikoaren balio ekonomiko osoaren kalkulua edukitzea, baita bertako ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumenaren arloko ondasun eta zerbitzuena ere.
Jarduerak	<p>41. Azterlan bat abiatuko da Arabako Lautadako Irla-hariztiak izateak dakartzan onurak zenbatesteko. Azterlan horretan kontuan hartuko dira hala biodibertsitatearen balio ekonomikoa nola haren ondorio diren ingurumen zerbitzuena eta dibertsitate biologikorako KBEaren lurretan egindako jardueren gutxi gorabeherako balioespena. Azterketa hori zehazki egin ahalko da tokirako edo eskala handiagoan egindako azterketen barruan, ondoren emaitzak lekuz aldatzea ahalbidetuko duten metodologiaren bidez.</p> <p>42. Aurreko azterketako emaitzak tokiko erkidegoetan jakinaraziko dira eta alderdi interesdun guztien esku jarriko, erabakiak hartzeko prozesu guztietan eta tokiari eragin diezaieketen ebaluazio estrategikorako eta eraginaren ebaluaziorako prozeduretan kontuan har daitezten. Azterlan bat egingo da tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruz.</p> <p>43. Azterlan bat egingo da tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.</p>
3.4 Helburu operatiboa	KBEko eta ENEko basa faunaren heriotza ez naturala adierazteko mapa bat egitea, bertan puntu beltzak adierazita.
Jarduerak	<p>44. Martiodako Fauna Basatiaren Suspertegian sartzen diren Arabako Lautadako Irla-Hariztiak KBEko basa espezie guztien erregistro informatikoa egingo da. Bertan, honako datu hauek jasoko dira: lesio mota, arrazoiak eta non batu den.</p>

	<p>45. Lortutako informazioarekin, gune beltzen mapa bat egingo da; bertan, honako hauei buruzko informazio georreferentziatua jasoko da: linea elektrikoen edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkak eta elektrokutatuta, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoirengatik gertatutako heriotzak. Neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko, baita plan, programa eta proiektuen ingurumen ebaluazioetan aintzat hartzeko ere.</p> <p>46. Abeltzainei, baso jabeei, mendi elkarteei, ehiztariei eta lurraldean ibiltzen diren beste kolektibo batzuei maparen berri emango zaie, eta ingurumen administrazioko langileei ikusten dutenaren berri emateko animatuko dira.</p>
--	---

3.2.- KOMUNIKAZIOA, HEZIKETA, PARTAIDETZA ETA HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA

4. Helburu orokorra	Bizilagunen inplikazioa sustatzea Arabako Lautadako Irla-hariztiak KBEren kontserbazioan.
4.1 Helburu operatiboa	Herritarrei aldizka hauei buruzko informazio ulergarria ematea: Arabako Lautadako Harizti Irletako biodibertsitatearen kontserbazio egoerari, egoera kaltegarriak sortzen dituzten arrazoiei, haren inguruko politika publikoei eta emaitzei eta Arabako Lautadako harizti irlek eskaintzen dituzten ondasun eta ingurumen zerbitzuei buruzkoa.
Jarduerak	<p>47. Informazio eta sentsibilizazio plan bat egingo da, ezaguera eta ulermen egokia garatu dadin, jokabideetan aldaketak izan daitezen eta KBEaren biodibertsitaterako kaltegarriak diren jokamoldeak eten edo aldatzeko. Plan horrek helburu hauek izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> o KBEaren onurak jakinaraztea o KBEaren gaineko ezagutzak eta erkidegoetan eta toki erakundeetan haren gizarte onarpena hobetzea. Informazio panelak instalatuko dira. <p>48. Informazio taulak jarriko dira.</p> <p>49. KBEri eta bere helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeko aldizkako ebaluazioak egingo dira; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientziazte ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.</p>

3.3.– GOBERNANTZA

5. Helburu orokorra	Organo publiko eskudun guztien elkarlan instituzionala hobetzea eta ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honekin koherentea izan dadin.
5.1 Helburu operatiboa	Lehengoratzte eta kontserbazio neurriak aplikatzeko koordinazio sistema bat sortzea organismo eskudunekin.
Jarduerak	50. Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, udalen, administrazio batzarren... arteko zeharkako foroak sortzea, batetik KBEaren kudeaketa agirian jasotako arau, neurri eta gainerako xedapenak aplikatzen laguntzeko eta bestetik informazioa trukatzeko. Jarraipen organo hau, gehienez, KBE izendatu eta urtebetera eratu beharko da.
5.2 Helburu operatiboa	Gaur egungo ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, kudeaketa tresnaren aplikazioa errazteko.
Jarduerak	51. Erakunde jabe edo sustatzaileek, kontzejuek, udalek eta KBEaren kudeaketa foru organoak egin beharreko jarduerak baimentzeko protokolo bat ezartzea.

4.– JARDUEREN KOSTUAREN GUTXI GORABEHERAKO KALKULU EKONOMIKOA

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 22. artikuluan ezartzen duena betetzeko, jarraian programa honetako jarduketa eta neurriei dagozkien kalkulu ekonomikoak zehaztuko dira.

22.3. artikulua:

Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.

Jarraian, aipatu den 8. artikuluko hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

1. *Kontserbazio bereziko eremu izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak eta/edo lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruz proposamenak egiten dituzten aldi berean, Estatu kideek Batzordeari haien kalkuluak bidaliko dizkiote, bidezkoa denean, Europako Batasunaren finantzaketari buruz egokitzen jotzen dutena dela-eta, 6. artikuluko 1. idatz zatian hitzartuta dagoenaren arabera haien betebeharrak bete ahal izateko.*

2. *Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, finantzaketa eskatzen deneko leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu ezinbestekoak diren neurriak,*

2016ko urriaren 3a, astelehena

lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo lehengoratzeko, eta neurri horien ondoriozko kostu osoak ere zehaztuko ditu.

2.1.- HARIZTIAK

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
1.	KBEan dauden baso pribatuen kartografia egitea eta haien jabeekin zaintza akordioak adostea. Zaintza akordio horiek haien eusteko eta haien lehengoratzeko beharrezko jarduerak jasoko dituzte.	33.000
2.	Zutik edo lurrean dagoen egur hila nahikoa ez denean, haren bolumena ugartzea, birsorkuntza prozesua bizkortzeko.	4.000
3.	Urtean sutarako ateratako egurraren bolumena kalkulatzeko eta ziurtatzeko eskariak ez duela arriskuan jarriko basoetan egur hil nahikoa egotea.	1.000
4.	Hidromorfia- eta istilte-baldintza naturalak lehengoratzeko Montico, Arangutxi eta Arzubiaga basoetan.	50.000
5.	KBEko basoetan babes bereziko araubidepeko landaredi espezieen inbentario osoa eta jarraipen plan bat egitea eta gauzatzea.	5.000
6.	Faunarako intereseko zuhaitz motzak eta zuhaitzak inbentariatzea eta kartografiatzea eta bidezkoa denean mantentze ekintzak egitea dira. Ekintza horiek kudeaketako tresna hau indarrean dagoen bitartean egin behar dira; horretarako, iraun behar duten denbora planifikatu behar da, beste zuhaitz batzuk haien ordezkokoak izateko moduko neurria lortzen duten arte.	3.000
7.	KBEan babes bereziko araubidean dauden flora baskularreko espezieak (<i>Ranunculus auricomus</i> , <i>Ophioglossum vulgatum</i> , <i>Galium boreale</i> , <i>Narcissus bulbocodium</i> eta <i>Senecio carpetanus</i>) ex situ kontserbatzea, haien populazioak arriskuan jarri gabe, Olarizuko Lorategi Botanikoko Germoplasma Bankuan, eta dauden populazioak indartzeko, landareak berriro sartzeko, sarrera onberak egiteko edo populazio berriak sortzeko landareak ekoizteko beharrezkoak diren erretze eta hazkuntza protokoloak diseinatzea.	4.000
8.	KBEan eta Esku Hartzeko Nekazaritza Eremuan esanguratsuak ez diren habitatak ordeztuz hariztien azalera handitzeko xehetasun plana egitea.	2.000
9.	Txosten bat idaztea, esku hartzeko nekazaritza eremuaren barruan dauden luberri guztien gaur egungo erabilera eta eremu horiek berriro baso bihurtzeko dituzten aukerak aztertzeko, kontuan hartuta gaur egungo gozamenendunen eta administrazio batzarren interesak, eta alde horretatik ingurumen arloko kanpoko ekintzetarako pizgarriak sustatuko dira.	2.000
10.	Kreditu bidezko baimen besterengarrien sistema bat ezartzeko modua aztertzea, berezko landare estalkia eta basoak lehengoratzeari lotutako nitratoak urritzeko, eta karbonoa bahitzearen kredituak.	12.000

2016ko urriaren 3a, astelehena

11. Nekazaritza matrizean Habitaten Bankua sortzeko aukera aztertzea, hariztiak eta lotura elementuak lehengora daitezela bideratzeko.	1.000
12. Hariztien eta kalitatezko lotura elementuen azalera lehengoratzeko eta handitzeko ingurumen arloko kontratuak sina daitezela sustatzea.	30.000
13. Esku hartzeko Nekazaritza Eremuan (ENE) dauden putzuak, loturarako interesa duten elementu natural linealak eta landaredi naturaleko multzo guztiak kartografiatzea, ezaugarritzea eta balioestea.	3.000
14. Ingurumen baldintzen proposamen bat egitea luberrien nekazaritza ustiapenerako emakidak esleitzeko. Proposamen horrek bateratu egingo ditu gozamendunen interesak eta luberrien izaera publikoa nahiz luberriek hariztiak lotzeko aukera handitzeko duten ahalmena.	3.000
15. Zadorra ibaiarekiko lotura elementu linealak eta basotxoak lehengoratzeko, dauden luberrien itzulketaren edo ingurumen atzea, dauden luberrien itzulketaren edo ingurumen baldintzen bidez, bai eta Iturritxu erreka ingurumen aldetik hobetuz ere.	50.000
16. KBeko orbanen eta horien eta inguruko intereseko beste espazio eta habitaten lotura naturala hobetuko duten heskaiak lehengoratzeko.	50.000
17. KBeko basoen inguruko matrizean nekazaritza sistemetako hegazti arruntten jarraipenerako protokoloa egitea eta betearaztea eta agiri horren indaraldia amaitu baino lehen populazioen oinarritzko egoera ezartzea.	5.000
18. Unean uneko eraginak (zabortejiak, landaredi nitrofiloko guneak, jabetze pribatuak) jasaten dituzten guneen inbentario xehatua egitea. eta harizti bihur daitezkeenak, eta lehengoratzeko plan bat diseinatzea.	8.000
19. Kontrolik gabeko isurketen eragina jasan duten eremuak lehengoratzeko. Besteak beste hauek hartuko dira aintzat: hondakinak kentzea eta gerora halakoak tratatu eta behar bezala kudeatzea, eta hondatutako guneak ingurumen aldetik lehengoratzeko, babestutako habitatak lehengoratzeko.	30.000
20. Hariztietatik kanpoko nekazaritza makinetarako bazterbide egokiak zehaztea.	1.000
21. Txosten bat egitea drainatze artifizialek eta ur ibilgu txikien kanalizazioek KBeko basoetan duten eraginari buruz, eta haranaren sakoneko hariztien lurzoruen hidromorfia lehengoratzeko aukerak ebaluatzea.	10.000

2016ko urriaren 3a, astelehena

2.2.- BASO IGEL JAUZKARIA (Rana dalmatina)

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
22. KBEan anfibioen laginketarako protokoloa diseinatu eta betearaztea.		10.000
23. Baso-igel jauzkariaren populazioaren banaketa eta tamaina ezartzea eta bi urterik behin lautadako populazio gune guztien jarraipena egitea; horren haritik, gune bakoitzean arrisku eta mehatxuak identifikatuko dira.		20.000
24. Kudeaketako agiri honen indarraldiko lehen bi urteetan KBEaren eta ENEaren prospekzioa osatzea, anfibioentzat eta bereziki baso-igel jauzkariarentzat egokiak diren hezeguneak kokatzen eta kartografiatzen amaitzeko.		3.000
25. Mezkiako hariztia Arangutxiko hariztiarekin lotzea, eta hala, biak lotzen dituen txilardi kaltzikolan baso korridorea sortzea.		30.000
26. Arangutxiko harizti-erkamezti subatlantikoaren multzoa handitzea basotxoaren hegoalde eta mendebaldean kokatutako txilardi kaltzikoletan.		10.000
27. Montico hariztiaren ondoko ureztatze putzuaren hegoaldean dagoen txilardi kaltzikolako zerrenda estu batean baso korridorea sortzea, eta putzu horren bazterrak atontzea.		20.000
28. Larrazabalgo hariztiaren hego-ekialdean eta hegoaldean bertan behera utzita dauden belardietan harizti-erkamezti subatlantikoko bi multzo lehengoratzea, eta harizti horren hego-ekialdean dagoen ureztatze putzuaren bazterrak atontzea.		30.000
29. Korridore ekologikoa sortzea putzu hori eta Gazeoko ureztatze putzua lotzen dituzten bideetan heskaien sare batetik abiatuta, bai eta sahasien eta hezeguneen espazio bat ere trenbidearen alde bietan, bertan baitago lautadako baso-igel jauzkariaren hondar-populaziorik garrantzitsuenetako bat. Korridorean sartzea putzuen artean tarteko posizioan dauden belardi hezeko eta makaldiko bi gune; hartara, harizti-erkamezti gisa lehengoratuko dira eta haien barnealdean hainbat putzu sortuko dira.		30.000
30. Hurbil dauden Gazetako eta Burgeluko hariztiak heskai baten bidez lotzea biak komunikatzen dituen bidearen muga, eta bideetan heskaien bilbe baten bidez era berean Santa Luziako hariztiarekin lotuko dira.		40.000
31. Burgeluko ureztatze putzuaren ertzak atontzea.		3.000
32. Bideetan heskaien sare bat sortzea Añuaren hegoaldean, Ixonako hego-mendebaldeko eremuaren bitartez Aberasturiko basoekin lotzeko (Gasteizko Mendi Garaiak KBEa).		20.000

2016ko urriaren 3a, astelehena

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
33.	Bideetan heskaien bilbea handitzea Mendiluzko harizti-erkamezti subatlantikoa Maumeako harizti eta hezegunearekin lotzeko, bai eta Maumea eta Durrumakoa Errekabarri errekarrekin eta Sarrenakoa Ceriorekin lotzeko ere.	10.000
34.	Mendiluzko hariztiaren ondoko urreztatze putzuaren ertzak atontzea eta hariztiaren ekialdean eta barnealdean putzu berriak sortzea.	20.000
35.	Istildu ahal diren guneen kokalekuak hautatzea (ahal dela jabetza publikoko lurzoruan) eta halakoak egokitu edo lehengoratzeko beharrezkoak diren ekintzak egitea, proposamen teknikoetan ezartzen diren gidalerro eta irizpide teknikoaren arabera.	6.000
36.	KBEn eta inguruan anfibioen hilkortasunaren aldiari jarraipena egitea, egon daitezkeen gune beltzak detektatu ahal izateko.	4.000
37.	Gune beltzen eragina zuzendu edo minimizatzea, baldin eta dagozkion neurri tekniko bidez antzemanaz gero.	15.000
38.	KBeko hezeguneetan espezie exotiko eta inbaditzaileak antzemateko protokoloa diseinatzea eta betearaztea. Espezie horiek detektatzen badira, aldiari-aldiari desagerraraztea, hezegune bakoitzean egokiena den prozeduraren bitartez (hustuketa, arrantza elektrikoa, etab.).	5.000

3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**3.1.- Biodibertsitateari buruzko ezagutzak eta informazioa**

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
39.	«Basa fauna eta florarako balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua» sortzea. Inbentario horretan txertatuko dira Ingurumen Gaietarako Ikastegiak Gasteizko udal mugartean egindako inbentarioan dauden datuak.	11.100
40.	Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentzararen 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrik betetze aldera.	21.000

2016ko urriaren 3a, astelehena

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
41.	Lautadan harizti iriak izateak dakartzan onurak zenbatesteko ikerketa. Ikerketa horretan kontuan hartuko dira hala bioaniztasunaren balio ekonomikoa nola haren ondorio diren ingurumen zerbitzuena eta dibertsitate biologikorako KBEaren lurretan egindako jardueren gutxi gorabeherako balioespina.	5.500
42.	Aurreko azterketako emaitzak tokiko erkidegoetan jakinaraztea eta alderdi interesdun guztien esku jartzea, erabakiak hartzeko prozesu guztietan eta tokia ireragin diezaieketen ebaluazio estrategikorako eta eraginaren ebaluaziorako prozeduretan kontuan har daitezen.	1.600
43.	Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.	2.000
44.	Arabako Lautadako Harizti-irilen KBEa jatorri duten eta Martiodako Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezie guztien erregistro informatikoa egitea.	2.000
45.	Lortutako informazioarekin, gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georreferentziatua jasoko da: linea elektrikoan edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkak eta elektrokutatuta, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoigatik gertatutako heriotzak. Neurri zuzentzaileen proposamena.	4.000
46.	Maparen berri emango zaie nekazari, abeltzain, baso jabe, mendi elkarte, ehiztari eta lurraldean ibiltzen diren beste talde batzuei, eta bultzarazi egingo zaie ikusten dutenaren berri ingurumen administrazioako langileei ematera.	2.000

2016ko urriaren 3a, astelehena

3.2- Komunikazioa, heziketa, partaidetza eta herritarren kontzientziakzioa

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
47.	Informazio eta sentsibilizazio plan bat egitea, ezaguera eta ulermen egokia garatu dadin, jokabideetan aldaketak izan daitezen eta KBEaren biodibertsitateko kaltegarriak diren jokamoldeak eten edo aldatzeko.	3.700
48.	Informazio taulak jartzea.	26.000
49.	KBEari eta haren helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzekeo aldizkako ebaluazioak; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientziatze ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.	4.000

3.3- Gobernantza

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
50.	Eusko Jauriaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, udalen, administrazio batzarren... arteko zeharkako foroak sortzea, batetik KBEaren kudeaketa agirian jasotako arau, neurri eta gainerako xedapenak aplikatzen laguntzeko eta bestetik informazioa trukatzeko.	4.000
51.	Erakunde jabe edo sustatzaileek, kontzejuek, udalek eta KBEaren kudeaketa foru organoak egin beharreko jarduerak baimentzeko protokolo bat ezartzea.	1.500

JARDUEREN KOSTUA, GUZTIRA**645.400 euro**